7/08

Dictamen

Sobre la Proyecto de Decreto

# POR EL QUE SE CREA EN EUSKADI EL REGISTRO DE EMPRESAS ACREDITADAS EN EL SECTOR DE LA CONSTRUCCIÓN/ERAIKUNTZAKO ENPRESA BERMATUEN ERREGISTROA (REASC/EEBE) Y SE REGULA SU FUNCIONAMIENTO

Bilbao, 11 de junio de 2008

CES

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

Consejo Económico y Social Vasco

© Edita: Consejo Económico y Social Vasco
Gran Vía, 35-1.ª planta
48009 Bilbao
www.cesvasco.es

Maquetación y fotomecánica: Argia Servicios Gráficos, S. L.

Impresión: Gestingraf, S. A. L.

Depósito Legal: BI-354-08

# Dictamen

## I ANTECEDENTES

El día 23 de abril de 2008 tuvo entrada en el Consejo Económico y Social Vasco escrito del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, solicitando informe sobre el *Proyecto de Decreto por el que se crea en Euskadi el Registro de Empresas Acreditadas en el Sector de la Construcción/Eraikuntzako Enpresa Bermatuen Erregistroa (REASC/EEBE) y se regula su funcionamiento,* según lo establecido en el artículo 3.1.b) de la Ley 9/1997, de 27 de junio, del Consejo Económico y Social Vasco.

Se trata de un Proyecto de Decreto que, en el ejercicio de las competencias ejecutivas en materia laboral que ostenta la Comunidad Autónoma del País Vasco en virtud del artículo 12 de su Estatuto de Autonomía, así como de la facultad de autoorganización para ordenar y organizar los servicios precisos para el ejercicio de la competencia de ejecución de la legislación laboral, da cumplimiento en la CAPV a la creación por parte de las Comunidades Autónomas del Registro de Empresas Acreditadas en el sector de la construcción prevista por el artículo 6 de la Ley 32/2006, de 18 de octubre, reguladora de la subcontratación en el sector de la construcción, y desarrollada reglamentariamente por el Real Decreto 1109/2007, de 24 de agosto, que junto con la legislación general en materia laboral y de prevención de riesgos laborales conforman el marco legislativo básico en la materia.



El día 28 de abril se dio traslado del documento a todos los miembros del Pleno del Consejo a fin de que remitieran sus propuestas y opiniones, y de las que se informó a la Comisión de Trabajo pertinente, según lo establecido en el Reglamento de Funcionamiento del Consejo Económico y Social Vasco.

El día 29 de mayo de 2008 se reunió en sesión de trabajo la Comisión de Desarrollo Económico para debatir una propuesta de Anteproyecto de Dictamen, emitiéndose el siguiente Proyecto de Dictamen que se eleva al Pleno del CES Vasco del 11 de junio de 2008 donde se aprueba por unanimidad.

## II CONTENIDO

El texto del Proyecto de Decreto sometido a consulta consta de un Preámbulo, cuatro artículos, dos Disposiciones Adicionales, y dos Disposiciones Finales.

### Preámbulo

El Preámbulo del Proyecto de Decreto describe el contexto legal en el que se enmarca la creación y regulación del Registro que constituye su objeto, conformado por el artículo 6 de la Ley 32/2006, de 18 de octubre, reguladora de la subcontratación en el sector de la construcción, que prevé la creación de un Registro de Empresas Acreditadas, dependiente de la Autoridad Laboral competente por razón del territorio de radicación del domicilio social de la empresa, el Real Decreto 1109/2007, de 24 de agosto, de desarrollo reglamentario que regula detalladamente la inscripción de contratistas y subcontratistas y las normas generales sobre registros, el Anexo I del Real Decreto que contienen los modelos de declaración que han de formularse por las empresas ante el Registro; y la Disposición Adicional tercera que prevé la adaptación de los modelos a las necesidades específicas y lenguas oficiales de las Comunidades Autónomas.



En su virtud y en el ejercicio del derecho de autoorganización que ostenta la CAPV se dicta el Proyecto de Decreto, justificado como materialización de la asignación competencial legalmente establecida, y como adaptación a las especificidades de la CAPV, sobre las que se menciona expresamente la lengua propia cooficial en la CAPV.

### Cuerpo Dispositivo

El **Artículo 1** fija el objeto del Decreto, consistente en regular en la CAPV la creación, organización y funcionamiento del Registro de Empresas Acreditadas en el sector de la construcción, previsto en el art. 6 de la Ley 32/2006.

El **Artículo 2** establece el carácter administrativo del Registro, configurado como un servicio público para los ciudadanos y ciudadanas así como para las entidades públicas o privadas interesadas en acceder al mismo.

El **Artículo 3** se dedica al funcionamiento del Registro, señalándose su gobierno por las normas contenidas en el Capítulo II del Real Decreto 1109/2007, de 24 de agosto que desarrolla la Ley 32/2006 reguladora de la subcontratación en el sector de la construcción y entendiéndose como autoridad competente la Delegada o Delegado Territorial del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social correspondiente al Territorio Histórico de domiciliación de la empresa contratista o subcontratista. El funcionamiento y gestión se realizarán mediante un sistema informático.

El **Artículo 4** caracteriza el Registro de Empresas Acreditadas como uno único para toda la CAPV, adscrito y dependiente de la Dirección de Trabajo y Seguridad Social, dependiente del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, y desconcentrado en las Delegaciones Territoriales de Alava, Bizkaia y Gipuzkoa, de manera que las empresas tramitarán sus solicitudes ante la Delegación del Territorio Histórico de radicación de su domicilio. Las Delegaciones serán competentes para resolver los expedientes de inscripción, comunicación de variación de datos, renovación y cancelación de inscripciones y de emisión de las certificaciones.

La **Disposición Adicional Primera** hace referencia a la publicación en Anexo al Decreto de los modelos de declaración empresarial ante el Registro de Empresas Acreditadas en el sector de la construcción.

La **Disposición Adicional Segunda** modifica el Decreto 315/2005, de 18 de octubre por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social para asignar como apartado z bis 2) de su artículo 17 la atribución de llevanza del Registro de Empresas Acreditadas en el Sector de la Construcción con sede social en la CAPV y de ejercicio respecto a ellas de las competencias atribuidas a la Autoridad Laboral.

La **Disposición Final Primera** faculta al Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social para adoptar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución del Decreto.



La **Disposición Final Segunda** establece la fecha de entrada en vigor del Decreto.

## III CONSIDERACIONES GENERALES

La Ley 32/2006 de 18 de octubre, reguladora de la subcontratación en el sector de la construcción, establece un régimen jurídico específico dirigido a establecer las garantías precisas para que la forma productiva de la subcontratación en el sector de la construcción, sector sometido a riesgos especiales y de gran importancia en la economía, pueda cumplir su función en el incremento de la productividad del sector sin producir menoscabo en las condiciones de seguridad y salud de los trabajadores.

Con este objetivo, la Ley en su artículo 4 impone a las empresas que pretendan intervenir en el proceso de subcontratación en el sector de la construcción, tanto como contratistas como en calidad de subcontratistas, una serie de exigencias entre las que figura la de estar inscritas en un Registro de Empresas Acreditadas en el sector de la construcción, y la de acreditar el cumplimiento de una serie de requisitos mediante una declaración suscrita por su representante legal formulada ante el mencionado Registro de Empresas Acreditadas, requisitos que se concretan en:

– El poseer una organización productiva propia, con los medios materiales y personales necesarios, dedicados al desarrollo de la actividad contratada.

– La asunción de los riesgos, obligaciones y responsabilidades propias del desarrollo de la actividad empresarial

– El ejercicio directo de las facultades de organización y dirección sobre el trabajo en la obra de sus trabajadores.

– Acreditar disponer de recursos humanos con la formación necesaria en prevención de riesgos laborales, así como una organización preventiva adecuada a la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales.

El incumplimiento de las empresas de los deberes de registro y de vigilancia del cumplimiento por parte de las empresas con que contraten de lo dispuesto sobre las obligaciones de acreditación y registro han quedado tipificadas como infracciones graves o muy graves en el marco de la Ley de Infracciones y Sanciones en el Orden Social, además de desencadenar la responsabilidad solidaria respecto de las obligaciones laborales y de seguridad social derivadas del contrato acordado.

La creación del Registro de Empresas Acreditadas en el sector de la construcción viene prevista por la propia Ley 32/2006 de 18 de octubre, reguladora de la subcontratación en el sector de la construcción, y atribuida a la autoridad laboral competente, entendiéndose por tal la correspondiente al territorio de la Comunidad Autónoma en que radique el domicilio social de la empresa contratista o subcontratista. El Registro de Empresas Acreditadas se erige, por tanto, en pieza indispensable de la arquitectura prevista por la Ley 32/2006 para configurar el sistema de garantías que ésta diseña, y que será exigible a partir de 26 agosto 2008.



Es por ello que este Consejo valora positivamente la iniciativa normativa emprendida para la creación del Registro de Empresas Acreditadas en el sector de la construcción por el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco, dando así cumplimiento en la CAPV a la obligación legal en este sentido existente, y poniendo en marcha, tardíamente aunque esperamos que todavía dentro del plazo establecido, este instrumento imprescindible para el funcionamiento correcto y sin distorsiones del régimen de garantías de las condiciones de seguridad y salud de la subcontratación en el ámbito de la construcción.

Por otro lado, advertimos que el Proyecto de Decreto objeto de este Dictamen limita sus disposiciones a la creación del Registro y a una caracterización básica del Registro que se crea –su naturaleza administrativa, su vocación de servicio público, su carácter único y desconcentrado en delegaciones de cada Territorio Histórico y su funcionamiento y gestión mediante sistema informático- mientras que, en cuanto a su regulación se refiere, más allá de la adaptación de los modelos de declaración

al euskera, el Proyecto de Decreto se remite directamente a la normativa establecida por el Real Decreto 1109/2007 de 24 de agosto de desarrollo de la Ley reguladora de la subcontratación en el sector de la construcción y que contiene una regulación detallada del Registro.

A este respecto hemos de señalar que, además de cumplir con el mandato legal de creación del Registro, nos parece importante que la propia norma de creación, sin perjuicio del ulterior desarrollo reglamentario del que pueda ser objeto, y sin perjuicio de que se puedan tener opiniones opuestas o distintas sobre la conveniencia de regulación de algunos aspectos de la normativa estatal del registro (como la posible reducción de la periodicidad de renovación de la inscripción, y mayor exigencia en la documentación e información a presentar y registrar, en especial referida a la prevención de riesgos laborales), reproduzca los elementos esenciales mínimos de su regulación, de manera que permita a los administrados conocer de manera directa, sencilla y precisa, sin remisión a otras normas, aspectos tan relevantes como pueden ser la documentación a presentar, el procedimiento registral, con su contenido, forma y efectos, las prerrogativas de la autoridad laboral en el mismo, el procedimiento de emisión de certificaciones, el alcance de la información accesible o las modalidades de acceso del público al registro. Entendemos que ello facilitará la labor tanto del público interesado en el Registro como de los oficiales encargados de su llevanza, redundando, en definitiva, en la prestación a la ciudadanía de un mejor y más accesible servicio público, en una más correcta implementación de la Ley 32/2006 y su normativa de desarrollo, y en la consecución de los objetivos que ésta persigue.



En este mismo orden de cosas hemos de hacer también mención a la valoración positiva que nos merece la utilización de las tecnologías de la información en el funcionamiento y gestión del registro que señala el texto del Proyecto de Decreto, poniendo al servicio de la gestión administrativa y de las relaciones entre administración y ciudadanos las ventajas que éstas ofrecen en términos de agilidad, eficacia y eficiencia. En este sentido, y en consonancia con los avances y progresiva utilización de las que son objeto, abogamos por una profundización en su utilización, y su aplicación también en la gestión de otras figuras que traen igualmente causa en la Ley 32/2006, como el Libro de Subcontratación.

Resulta necesario hacer hincapié sobre un elemento fundamental en el correcto funcionamiento del sistema de garantías de las condiciones de seguridad y salud de la subcontratación en el ámbito de la construcción que prevé la Ley 32/2006, y de la función desempeñada en el mismo por el Registro de Empresas Acreditadas, cual es la efectiva colaboración entre las Autoridades Laborales de las distintas Comunidades Autónomas y el Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales a los efectos de que los datos de las empresas estén permanentemente actualizados independientemente de

la Comunidad Autónoma en que se suministren, y de que el principio de validez para todo el Estado de las inscripciones en cada uno de los Registros de Empresas Acreditadas sea una realidad. Sin una absoluta permeabilidad e intercomunicación de datos ello no será posible, por lo que instamos al Departamento a no ahorrar esfuerzos en la adopción de las medidas de gestión que a este fin sean pertinentes.

Finalmente señalar que se observa en la parte final del Preámbulo, que hace referencia a los órganos intervinientes en la elaboración y tramitación del Proyecto de Decreto, la omisión de la mención al CES, y que interviene de forma preceptiva en virtud del artículo 3.1.b) de su Ley de creación y regulación. Por consiguiente, consideramos necesario incorporar en el párrafo último del Preámbulo del Proyecto de Decreto la expresión "oído el Consejo Económico y Social Vasco", de forma que la frase quede finalmente de la siguiente manera:

> *En su virtud, previo dictamen de la Comisión Jurídica Asesora, oído el Consejo Económico y Social, y a propuesta del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, y tras deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el…*

## IV CONCLUSIONES



El CES Vasco considera adecuada la tramitación del Proyecto de Decreto objeto de consulta, con las observaciones que se efectúan en este Dictamen.

En Bilbao, a 11 de junio de 2008

Vº Bº El Presidente
Antxon Lafont Mendizabal

El Secretario General
Javier Muñecas Herreras

# Irizpena

## I AURRERKARIAK

2008ko apirilaren 23an Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordera Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailaren idazkia iritsi zen. *Euskadin Eraikuntzako Enpresa Bermatuen Erregistroa (EEBE) sortzeko eta funtzionamendua arautzeko Dekretu Proiektuari* buruzko txostena eskatzen zuen, 9/1997 Legeak, ekainaren 27koak, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzkoak, 3.1.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.



Autonomia Estatutuak 12. artikuluan lan-arloan Euskal Autonomia Erkidegoari emandako aginpide betearazleen babesean eta lan-legeriaren aginpideak betetzeko norberak zerbitzuak antolatzeko duen gaitasunari jarraiki, Dekretu Proiektu honek EAEn Eraikuntzako Enpresa Bermatuen Erregistroa sortzen du. Aipatutakoa 32/2006 Legeak, urriaren 18koak, eraikuntzaren sektorean azpikontratazioa arautzen duenak, 6. artikuluan aurrez ikusten du. Ondoren 1109/2007 Errege Dekretuak, abuztuaren 24koak arauz garatu zuen. Lan-arloan eta lan-arriskuen prebentzioaren arloan dagoen legeria orokorrarekin batera, arloan oinarrizko lege-esparrua osatzen dute.

Apirilaren 28an dokumentua Batzarreko Bilkura Osoko kide guztiei eman zitzaien, proposamenak eta iritziak bidaltzeko. Dagokion Lan Batzordeari horien berri eman zitzaizkion, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Araudiak xedatutakoaren arabera.

2008ko maiatzaren 29an Garapen Ekonomikoaren Batzordea lan-saioan bildu zen Irizpen Aurreproiektuaren proposamena eztabaidatzeko eta hurrengo Irizpen Proiektua egin zuen. 2008ko ekainaren 11an ospatutako Batzordearen Osoko Bilkuran aho batez onartu zen.

## II EDUKIA

Kontsultatutako Dekretu Proiektuaren testuak Sarrera, lau artikulu, bi Xedapen Osagarri eta bi Azken Xedapen ditu.

### Sarrera

Dekretu Proiektuaren Sarrerak Erregistroaren sorrera eta erregulazioa lege-testuinguruaren barruan jartzen du, beraz, honakoei erreparatzen die: 32/2006 Legeak, urriaren 18koak, eraikuntzaren sektorean azpikontratazioa arautzen duenak, 6. artikuluan xedatutakoari; enpresaren helbide sozialak izandako kokapenaren arabera, lan-aginpidea duen lurraldean Lan Agintaritzaren mende Enpresa Bermatuen Erregistroa sortu behar da; 1109/2007 Errege Dekretua, abuztuaren 24koa, kontratisten eta azpikontratisten inskripzioa zehatz-mehatz arautzen duena eta erregistroei buruzko arau orokorrak ematen dituena; Errege Dekretuaren I. Eranskinak Erregistroaren aurrean enpresek formulatu behar dituzten bi aitorpen-ereduak ditu; hirugarren Xedapen Osagarriak ereduak behar berezietara eta Autonomia Erkidegoetako hizkuntza ofizialetara egokitzea aurrez ikusten du.



Horren babesean eta EAEk antolatzeko duen eskubidea aplikatuz, Dekretu Proiektua egin da eta legez xedatutako aginpide-esleipena betetzeko gauzatu da. Halaber, Dekretu Proiektuarekin EAEko berezitasunetara moldatu da; ildo horri jarraiki, berariaz aipatzen da EAEko hizkuntza ofiziala.

### Xedapenak

**1. artikuluak** Dekretuaren xedea finkatzen du, hain zuzen ere, EAEn Eraikuntzako Enpresa Bermatuen Erregistroa sortu, antolatu eta funtzionatzeko arauak ematea, 32/2006 Legeak 6. artikuluan xedatutakoari jarraiki.

**2. artikuluak** Erregistroaren izaera administratiboa xedatzen du; zerbitzu publiko bat da herritarrentzat, baita erakunde publiko eta pribatuentzat ere hori erabiltzera interesatuak badaude.

**3. artikuluak** Erregistroaren funtzionamendua lantzen du; 1109/2007 Errege Dekretuak, abuztuaren 24koak, Eraikuntzan Azpikontratatzioa arautzeko 32/2006 Legea garatzen duenak, II. Kapituluan dituen arauei jarraiki gobernatuko da. Agintaritza eskuduna enpresa kontratistak edo azpikontratistak helbidea duen Lurralde Historikoko Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saileko Lurralde Ordezkaria izango da. Funtzionamendua eta kudeaketa sistema informatikoaren bidez egingo da.

**4. artikuluak** xedatutakoaren arabera, Enpresa Bermatuen Erregistroa EAE guztirako bakarra da eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Saileko Lan eta Gizarte

Segurantza Zuzendaritzaren mende egongo da; Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzetan deszentralizatuko da, beraz, enpresek beren eskaerak helbidea duten Lurralde Historikoaren Ordezkaritzaren aurrean izapidetuko dituzte. Ordezkaritzek inskripzio-espedienteak ebazteko, datuen aldaketa jakinarazteko, inskripzioak berritu eta ezeztatzeko eta ziurtagiriak luzatzeko aginpidea izango dute.

**Lehenengo Xedapen Osagarriak** Dekretuaren eranskinean Eraikuntzako Enpresa Bermatuen Erregistroaren aurrean enpresa-aitorpenen ereduak argitaratzeari buruzko aipamena egiten du.

**Bigarren Xedapen Osagarriak** 315/2005 Dekretua, urriaren 18koa, Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala xedatzen duena, aldatzen du 17. artikuluko z bis 2) atalean Eraikuntzako Enpresa Bermatuen Erregistroa esleitzeko, sozietateak EAEn egoitza badu eta Lan Agintaritzari dagozkion aginpideak gauzatzeko.

**Lehenengo Azken Xedapenak** Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantzako Sailburuari ahalmena ematen dio Dekretua garatu eta gauzatzeko hartu beharreko xedapenak har ditzan.

**Bigarren Xedapen Osagarriak** Dekretua indarrean sartzeko data xedatzen du.



## III GOGOETA OROKORRAK

32/2006 Legeak, urriaren 18koak, eraikuntzan azpikontratazioa arautzen duenak, erregimen juridiko berezia xedatzen du eraikuntzaren sektorean azpikontratazioaren produkzio-moduak sektorearen produktibitatea gehitzeko orduan bere funtzioa bete dezan, langileen segurtasun- eta osasun-baldintzak urritu gabe. Hori bermatu behar da, sektoreak arrisku bereziak baititu eta oso garrantzitsuak baitira ekonomian.

Xede horrez, Legeak 4. artikuluan azpikontratazio-prozesuan (bai kontratista bezala, bai azpikontratista bezala) esku hartu nahi duten enpresei hainbat betekizun ezartzen dizkie, besteak beste, Eraikuntzako Enpresa Bermatuen Erregistroan inskribatuak egotea eta zenbait baldintza betetzen dituztela ziurtatzea; horretarako, legezko ordezkariak aitorpen bat sinatuko du Enpresa Bermatuen Erregistroaren aurrean. Baldintzak honako hauek dira:

- Berezko produkzio-antolaketa izatea, beharrezko bitarteko material eta giza baliabideekin, kontratatutako jarduera garatzeko.
- Enpresa-jardueraren garapenean berezko arriskuak, betebeharrak eta erantzukizunak onartzea.

– Obran bere langileen lanari buruz antolaketa- eta zuzendaritza-ahalmenak zuzenean betetzea.
– Lan-arriskuen prebentzioan beharrezko prestakuntza duten giza baliabideak egiaztatzea. Halaber, 31/1995 Legeak, azaroaren 8koak, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoak, xedatutakoari jarraiki, prebentzio-antolaketa egokia izatea.

Enpresek erregistro-eginbeharrak betetzen ez badituzte edo kontratatzen dituzten enpresek ziurtatu beharrekoak eta erregistroa betetzea zaintzen ez badute, arau-hauste larria edo oso larria izango da Lan Aginduaren Arau-hauste eta Zigorrei buruzko Legearen esparruan. Horrez gain, adostutako kontratuaren ondorioz sortutako lan eta gizarte-segurantzaren betebeharrekiko erantzukizun solidarioa izango da.

Eraikuntzako Enpresa Bermatuen Erregistroa sortzea 32/2006 Legeak, urriaren 18koak, eraikuntzan azpikontratazioa arautzen duenak, aurrez ikusten du. Aginpidea lan-agintaritza eskudunari ematen dio, hau da, enpresa kontratistak edo azpikontratistak sozietatearen helbidea duen Autonomia Erkidegoko lurraldeari. Beraz, Enpresa Bermatuen Erregistroa diseinatzen duen berme-sistema egituratzeko, 32/2006 Legeak aurrez ikusitako arkitekturan ezinbesteko pieza da. 2008ko abuztuaren 26tik aurrera eskatuko da.



Horregatik, Batzordeak positiboki balioztatzen du Eraikuntzako Enpresa Bermatuen Erregistroa sortzeko Eusko Jaurlaritzako Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailak izandako araudi-ekimena. Hala, EAEn legezko betebeharra betetzen da; abian berandu jarri arren, baina oraindik epearen barruan izango delakoan, eraikuntzaren eremuan azpikontratazioa segurtasun- eta osasun-baldintzetan egiten dela bermatzeko tresna egituratuko da, ezinbestekoa berme-erregimenaren funtzionamendu onerako.

Bestalde, honakoa ohartarazi nahi dugu: Irizpen honen xeden den Dekretu Proiektuak Erregistroa sortzeko eta Erregistroak oinarrizko karakterizazioa izateko xedapenak –izaera administratiboa, zerbitzu publikoaren bokazioa, bakarra izatea eta Lurralde Historiko bakoitzeko Ordezkaritzan deszentralizatua eta sistema informatikoaren bidezko funtzionamendua eta kudeaketa- mugatzen dituela; bien bitartean, arautzeari dagokionez, aitorpen-ereduak euskararekiko moldatzetik urrunago, Dekretu Proiektuak zuzenean 1109/2007 Errege Dekretuak, abuztuaren 24koak, eraikuntzaren sektorean azpikontratazioa arautzeko Legearen garapenak, xedatutakora bidaltzen du. Azkenekoak Erregistroaren erregulazio zehatza du.

Horri buruz honakoa aipa dezakegu: Erregistroa sortzearen legezko aginduarekin betetzeaz gain, garrantzitsua iruditzen zaigu sorrera-arau berak, ondorengo arau-garapena alde batera utzi gabe eta erregistroaren estatuko araudiaren zenbait alderdi (hala nola inskripzioa berritzeko aldizkakotasuna murriztea, aurkeztu eta

erregistratu beharrezko dokumentazioan eta informazioan betekizun handiagoa, bereziki, lan-arriskuen prebentzioari dagokionean) erregulatzeari buruz kontrako iritzia edo iritzi desberdina izan daitekeela alde batera utzi gabe, erregulazioaren gutxieneko funtsezko elementuak kontuan hartzea; hala, administratuek zuzenean, modu errazean eta zehatzean, beste arauetara jo gabe, besteak beste, honako alderdi aipagarriak jakingo dituzte: aurkeztu beharreko dokumentazioa, erregistratzeko prozedura, edukia forma eta ondorioak, lan-agintaritzaren eskumenak, ziurtagiriak luzatzeko prozedura, lor daitekeen informazioaren norainokoa edo jendeak erregistroa erabiltzeko modalitateak. Gure iritziz, horrek lana erraztuko die, bai erregistroan interesa duen jendeari, bai eramaten arduratuko diren ofizialei. Laburbilduz, hiritarrei zerbitzu publiko hobea eta irisgarriagoa eskainiko zaie, 32/2006 Legea eta bere garapen-araudia hobe inplementatuko baitira eta helburuak lortuko baitira.

Ildo horri jarraiki, era berean, balorazio positiboa egiten dugu Dekretu Proiektuaren testuak aipatuta, erregistroaren funtzionamenduaren eta kudeaketaren orduan, informazio-teknologien erabilerari buruz; administrazio-kudeaketaren eta administrazio eta hiritarren arteko harremanen zerbitzura jartzen dira horiek eskaintzen dituzten abantailak: arintasuna eta eraginkortasuna. Horri eutsiz, aurrerapenekin eta geroz eta gehiago erabiltzearekin bat, erabiltzeko orduan gehiago sakontzearen alde gaude. Halaber, 32/2006 Legeak xedatzen dituen bestelakoak (hala nola Azpikontratazioaren Liburua) kudeatzeko erabili beharko lirateke.



32/2006 Legeak eraikuntzaren eremuan azpikontratazioen segurtasun- eta osasun-baldintzen berme-sistemak behar bezala funtzionatzeko oinarrizko elementu bat aurrez ikusten du eta hori azpimarratzea beharrezkoa da, Enpresa Bermatuen Erregistroak bertan betetzen duen funtzioarekin batera. Autonomia Erkidegoa alde batera utzita, enpresen datuak etengabe eguneratuak egoteko, Autonomia Erkidego desberdinetako Lan Agintaritzen eta Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren arteko lankidetza eraginkorrez ari gara. Enpresa Bermatuen Erregistro bakoitzean inskribatutakoak baliagarriak dira Estatu osoan eta hori errealitate bat da. Datuak erabat iragazkortu eta elkarren artean komunikatu gabe ezinezkoa izango da, beraz, Sailari eskatzen diogu arlo horretan kudeaketa-neurriak hartzeko ahalegin guztia egitea eta ez aurreztea.

Azkenik, Sarreraren azken zatian Dekretu Proiektua egiten eta izapidetzen esku hartu duten organoak aipatzen dira eta EGAB ez dela aipatu hauteman dugu. Sorrerari eta erregulazioari buruzko Legeak 3.1.b) artikuluan xedatutakoaren babesean, derrigorrez parte hartzen du. Ondorioz, Dekretu Proiektuaren Sarreraren azken paragrafoan beharrezkotzat jotzen dugu honako adierazpena sartzea: “Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea entzunda”; azkenean, esaldia hurrengo moduan idatzia geldituko litzateke:

*Horren babesean, Batzorde Juridiko Aholkulariak aldez aurretik txostena egin ostean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari entzun ondoren, eta Justizia, Enplegu eta Gizarte Segurantza Sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak ……….. egindako saioan eztabaidatu eta onartu ondoren,…*

## IV ONDORIOAK

Euskadiko EGABren iritziz, Dekretu Proiektuaren izapidea egokia da Irizpenean egiten diren gogoetekin.

Bilbon, 2008ko ekainaren 11an

Lehendakariaren ikus onetsia
Antxon Lafont Mendizabal

Idazkari Nagusia
Javier Muñecas Herreras